

noaua

'AMETS' HERRI DANTZA IKUSKIZUNAZ GOZATZEKO UNEA IRITSI DA

Larunbat honetan eskainiko dute Usurbilgo frontoian, XIII. Dantza Egunaren baitan / 6-7 or.



ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

"Jantzi ezazue Euskaraldiko txapa. Animatu zaitetzte!" / 05




UDARREGL.EUS

Udarregi ikastola: "Elkarlanari esker lortu dugu 'STEM proficient' zigilua" / 15



USURBIL KE

Usurbil KE senior taldeak zaleen babesa beharko du larunbatean / 20



NOAUA

'Aztia' ikuskizuna Sutegin ikus ahal izango dugu igande honetan / 22

ANDATZA TABERNA

Neguko ordutegi berria!

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA RAZIOAK
OGITARTEKOAK

Ostegunetan
Pintxo pote!

8:00-20:00 Astelehenerdik - Ostegunera **BAZKARIAK**
 8:00-23:00 Ostiraletik - Larunbatera **BAZKARIAK / AFARIAK**
 8:00-21:00 Igandeak **BAZKARIAK**

Kalezar Auzoa 12, 0B, USURBIL 943732027

BARE
 HORTZ KLINIKA

SLOW — ODONTOLOGIA
 TEL: 943 29 06 19 — 639 44 33

sentitu - bizi - izan

- PADI (odontopediatria)
- ORTODONTZIA
- IMPLANTEAK
- ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
- ODONTOLOGIA ESTETIKOA
- SEDAZIOA

943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

JARRAI IEZAGUZU SARE SOZIALETAN

USURBILGO ALBISTEAK KLIK BATEAN

ARGAZKIAK

www.noaua.eu

@noauastekaria @noaua Noaua Aldizkaria @noauatb

SAGASTIENTZAKO ETA BARATZEENTZAKO ONURAGARRIAK DIREN INTSEKTUEN HOTELAK EGITEKO TAILERRA

Nola erakarri intsektu laguntzaileak (polinizatzaileak, beste intsektuak garbitzen dituztenak etab.) gure sagastira, baratzerara edota lorategira.

Agerreazpiko baratzeetan, eta Udarregi ikastolako ikasleekin eta etorri nahi duen guztiarekin batera, hain garrantzitsuak diren intsektuentzako babesguneak egiteko tailerra burutuko da.

APIRILAK 10 OSTEGUNA
 14:30/16:30 Agerreazpiko baratzeak

Irakaslea:
 Mateo Regla, Ingurumen zientzien dibulgazioan aditua

Izen-ematea: Doan
 943 361114 eta alkartasuna.eu web orrian

Antolatzaileak:

Gazteen topagunea

Bertako nahiz bisitari gazteen topagunea izan genuen iragan larunbata Usurbil. Izan ere, bi ekimen gurutzatu eta uz-tartu zituen martxoko azken asteburuak.

Batetik, Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Eguna.

Bestetik, Iruñetik bisitan etorritako Peña Alegriako kideen festa. Urtero inguruotako sagardotegi batean bazkaltzeko ohitura dute. Horren aitzakian herriko kaleak gogotik girotzen dituzte txaranga eta guzti. Aurtengazte Eguneko poteoarekin bat egin zuten.



Goizean hasi eta ordu txikiak arte luzatu zen Usurbilgo Gazte Eguna.

Garbigune mugikorra, Usurbilgo erdigunean

Apirilaren 3tik aurrera, garbigune mugikorra Usurbilgo erdigunean izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Apirilaren 10ean osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

1980an jaiotakoak maiatzaren 10ean elkartzeko dira

Aialde Berrin batuko dira bazkaltzeko. Menua sagardotegiko izango da. Triki poteoa ere iragarri dute, jaia girotzeko. 60 euroko transferentzia egin behar da kontu zenbaki batean, eta izen-abizenak adierazi bertan: ES9330080282135428647621. Larunbat honetan amaitzen da izen-ematea (apirilak 4).

1952an jaiotakoak maiatzaren 3an

Maiatzaren 3an Andatza tabernan elkartzekotan dira 1952an jaiotako herritarrak. Dena den, apirilaren 25era arteko epealdia finkatu dute izena emateko.

Horretarako, apuntatzeko alegia, telefono zenbaki honetara deitu beharko da: 620 516 715 (Javier).

1960an jaiotakoak maiatzaren 10ean

1960. urtean jaiotako herritarrak maiatzaren 10ean bilduko dira Atxega jauregian.

Izen-ematea hala ere, apirilaren 25a baino lehen egin beharko da.

Ospakizun honen antolatzaileek telefono zenbaki bat jarri dute interesatuen eskura: 655 720 666.



Argitaratzailea:
Noaia Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaia.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaia.eus
Banataleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaia.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



ALAZNE ARRUTI

Zaintzaren trantsizioez

Guztiok izan gara zainduak jaiotzean. Guztiok behar izan dugu zainduko gaituen norbait bizirauteko. Guztiok behar izan dugu neurriren batean, gure beharretara egokitutako atentzio eta babes eremu bat, bakoitzaren gabezi edo akats guztiakin izanda ere. Eta hala izaten jarraituko du aurrerantzean ere.

Zainduak izaten ematen dugu gure bizitzako lehen tarte handi bat, gurasoek, aiton-amonak, izeba-osaba, lehengusu, senide, bizilagun edo lagunek antolatu behar izan dute, nolabait, gure zaintza beharrei erantzuteko. Eta eskaini behar izaten da denbora, indarra, pazientzia, ulermena, arnasa, baliabide, gomendio edota esperientzia truke bat, nonbait.

Lehen ziurrenik, baziren hobe egiten ziren gauzak. Partekatuago, zabalago, komunitarioago izan zitezkeen moduak, agian. Baina gaur egun arte, zenbait gauzetan aurrerapenak ere lortu izan direla pentsatu nahi nuke. Hala ere, aldaketa eta moldaketa guzti hauen artean, puntu kritikoe-tako bat, zainduak izan garenok, zaintzaile izatera bilakatu beharreko trantsizioan hasten dela esango nuke.

Nire kasuan adibidez, izeba bilakatu nintzenean eman



"Aurretik ere, ingurua zaintzeko behar edo ardurari ere erantzuten saiatu izan naiz".

zen erronka esanguratsu bat. Iruzurtiaren sindromeak irentsi ninduen, haurra lehengo aldiz besoetan hartzeko, negarrez hasten zenean egoera kudeatzeko, pixoihala aldatzeko edo sinpleki, ordu bete bat berarekin bakarrik egoteke, prest ez nengoela pentsatzen nuelarik une oro eta etengabe. Egoera berria irudikatu eta mentalizatzen

"JASO DUGUNA BEZAINBESTE EMAN BEHARRA DUGULA DIOTE. ETA JASOTAKOA, KASU GEHIENETAN, NEURTEZINA DA"

saiatu izanda ere, blokeo moduko bat sentitzen nuen, konfiantza elikatuz pixkanaka lausotzen joan dena.

Noski, aurretik ere, ingurua zaintzeko behar edo ardurari ere erantzuten saiatu izan naiz. Lagunak, familia, bikotea... Baina, nolabait, naturalizatuago edo modu ezberdin batean bizi ditugun espazioak izan ohi direla esango nuke. Eta nire kasuan behintzat, momentu pertsonalaren eta garai bakoitzeko lehentasun eta denbora kudeaketaren arabera, baliabide gehiago edo gutxiagorekin erantzun izan ditut alor hauek.

Azken urteetan ordea, egoera gordin edo zailagoekin topatu naiz eremu hauetan ere. Izan ere, zaindu gaituzten horiek, zaharrago, nekatuago, ahulago... edo zenbaitetan gaixoago daudela jabetu bainaz, besteak beste. Eta aurrera begiratuz gero, erantzun beharreko zaintzaren zama eta ardura izugarriaz jabetu naiz. Haurrak hazten eta geroz eta independenteago izateko bidea hartu ohi duten ahala, helduaroan kontrako bideari ekiten zaiola dakigun arren, muturreko egoeretan jabetzen gara batez ere horretaz.

Jaso duguna bezainbeste eman beharra dugula diote. Eta jasotakoa, kasu gehienetan, neurtezina da.

'Orkestra lurtarra' liburua aztergai udal liburutegian

Maiatzaren 7an, Harkaitz Canoren 'Orkestra lurtarra' aztertuko dute udal liburutegian, Yolanda Arrietaren laguntzaz. "Saioa 9-12 urteko haur eta gaztetxoek zuzendua dago (LH4-LH6)". Saioa 18.00etan hasiko da. Liburuaren hainbat ale liburutegian dituzue eskuragarri.

Arropa bilteta solidarioa

Donostiako Hiritarron Harre-ra Sareko kideek gizekoezkoen arropa biltzeko deialdia egin dute datorren asterako, apirilaren 9an eta 10ean, 17:00-20:00 artean, Usurbilgo Gazte Lokalean (Artzabalena). "Zure laguntza behar dugu!", galdegin dute. Honatx bildu nahi dutena. "Prakak, txandalak, zapatilak, botak, jertseak, galtzerdiak behar ditugu", ohartarazi dute. Horrez gain, "itsulapiko bat egongo da diru ekarpena egin nahi duenarentzat".

Zenbaki bakarra Aste Santuko oporren aurretik

Apirilaren 11n plazaratuko dugu etenalditxoaren aurreko azken zenbakia. Oharrik baduzu, erredakzioa@noaua.eus helbidera bidali edo 943 360 321 telefono zenbakira deitu.



Unai Gaztelumendiren komiki-tira, TOKIKOMeko hainbat hedabideren eskutik.



Jon, Jose Ramon eta Valeria ere Euskaraldiaren Usurbilgo "enbaxadore" taldeko kideak ditugu.

"Jantzi Euskaraldiako txapa. Animatu!"

Apirilaren 12an aurkeztuko dute jendaurrean, Euskaraldiaren Usurbilgo Hamaikakoa. Herritar talde horretako kideak ditugu lerrotoako hiru protagonistak; Valeria, Jon eta Jose Ramon. Gainerakoen antzera, maiatzean izango dugun ariketa kolektiboarekin bat egiteko deia egin dute.

Euskaraldiaren Usurbilgo enbaxadore taldea ezagutzen ari gara astez aste NOAUA! bidez. Maiatzaren 15etik 25era egingo den ariketa kolektiboko hamaikako horren beste hiru kide dituzue albiste honi atxikitako argazkietan. Euskararen erabilera areagotu eta herritarren parte hartzea sustatuko duen talde osoa ezagutarazteko Euskaraldiaren laugarren edizioa prestatzen ari den herritarren batzordeak hamaikakoaren aurkezpen ekitaldia antolatu du apirilaren 12an, eguerdiko 13:00ean Mikel Laboa plazan. Herrikide taldea osorik ezagutzeaz gain, Euskal Herrian zehar egingo den moduan, karpagune bat jarriko da izena emateko, informazioa jaso, produktuak nahiz txapa eskuratzeko. Lehenago, gauza bera egingo du baita aipatu batzordeak ere; mahaia jarri-

ko du, larunbateko Dantza Egunean, 12:30etan hasita Sutegi atarian.

"Jantzi txapa!"

Hitzordu horren atarian, lerrotoan dituzue hamaikako horretako beste hiru kide; hasteko, Valeria Garcia Oyarzabal. Sortzez Argentinakoa, duela lau bat urtetik Usurbilgo herrikidea. Jaiotzetik, ordea, Euskal Herriarekin lotura estua izan du. Izan ere, amona

"NIRE ASMOA, BETIDANIK, EUSKARAZ HITZ EGITEA ETA EUSKAL HERRIAN BIZITZEA ZEN"

VALERIA GARCIA, ARGENTINAN JAIOA

Oiartzungoa zuen. Horregatik bertako hizkuntzarekin ere lotura estua izan du betidanik. "Nire asmoa, betidanik euskaraz hitz egitea eta Euskal Herrian bizitzea zen". Aipatu moduan, horrek ekarri zuen Usurbilera. Euskaraldian parte hartutakoa da lehendik belarriprest gisa baina, datorren maiatzeko laugarren edizioan urrats berri bat eman nahi du; "Ahobizi izango naitzela uste dut. Kostatzen zait

"EUSKARALDIK ASKO BALIO DU AUTOMATIZATUAK DITUGUN HAINBAT KONTUEZ JABETZEKO"

JON IRAZUSTABARRENA

hitz egitea" baina Valeriak Euskaraldia Usurbilen sustatzen ari den herritarren batzordeari eskainitako elkarrizketan nabarmendu dionez, "oso gustura" dago hizkuntza horretan aritu ahal izateagatik. Horregatik, "jantzi txapa! Animatu zaitez!" esanez, ekimenarekin bat egitera gonbidatu gaitu.

Automatismoez jabetzeko

Gauza bera egin du baita Jon Irazustabarrenak ere. Futbolari usurbildarrak, herrian bertan kirol arloan eragile ere bada. Izan ere, Zirimara proiektuko begiralea eta eskupilotako koordinatzailea da. Euskaraldiarekin bat egiteko deia egin du ariketa honen baliagarritasuna nabarmendu baitu. "Asko balio du automatizatuak ditugun hainbat kontuez jabetzeko", azaldu du. Esaterako, testuinguruaren arabera, ze hizkuntzetan, euskaraz edo erdaraz hitz egiten hasten garen konturatzeko. Horregatik, herritar guztiak Euskaraldiarekin bat egitera deitu ditu. "Animatu denak, elkar mugituz egingo dugu!".

Kezka

Geure hizkuntza ohituretan jarri nahi izan du arreta baita Jose Ramon Oiarbidek ere. Udarregi ikastolan urte luzez irakaskuntzan aritutako herrikidea, sortzez donostiarra, baina duela lau hamarkadatik Usurbilen bizi da. Oso hedatua dagoen ikuspegiak hausnartzeko deia egin du. "Beti iruditzen zaigu euskara oso toki onean dagoela, jada salbatua dugula, ez dagoela inolako arazorik", aipatu dio Euskaraldia Usurbilen dinamizatzen ari den herritarren batzordeari. Berak bestelakorik bizi izan du. "Nire esperientziatik eta hemen, ikastolan" gai horrekiko "kezka hori izan dugu". Horregatik, "ahal den neurrian, jende guztia nahiko nuke animatu. Elkar mugituz egingo dugu!", gogorarazi du.



Orbeldi dantza taldeko kideak, aurreko larunbatean Agerialden eginiko "Amets" herri ikuskizunaren azken entsegu saioan. Larunbatean estreinatuko dute, 13. Dantza Egunaren baitan. Pertsona baten barne bidaia irudikatuko du ikuskizunak.

Dantza zaletuak plazaratzeko ordua

Orbeldik egun osoan dantza giroan plazaratzeko moduko jaieguna prestatu du apirilaren 5erako. Kalejira, emanaldi edota erromeri artean joango zaigu 13. Dantza Eguna. Gauean, "Amets" izeneko herri ikuskizuna estreinatuko dute.

Gorputza mugitu nahi izan eta "festarako gogoz dena etor dadila" 13. Dantza Egunera, hortxe Orbeldi dantza taldetik egin diguten gonbita. Izan ere, dantzari eta zaletuena izango da herri hau apirilaren 5ean. Ekitaldiak ikusi eta entzun soilik ez, jai giroan buru-belarri murgildu ahalko du nahi duenak, erromeriaz girotua datorkigu eta aurtengo edizioa arratsalde eta gau partean. Dantzari Txikien topaketa izango da, bestalde, goizean, indartzeko herri osoari zabalik izango den bazkaria eta gauean, ikusmin handiena eragiten duen hitzordua, txalotuena, eta zer eskainiko ezagutzeko herria irrikari izaten duen ikuskizuna. "Amets" izena du aurtengoak.

"Atzean lan handia dago"
Konturatzeko hamahirugarren herri sorkuntza lana pres-

tatzen aritu dira hilabeteotan Orbeldiko kideak. Guztiz sustraitua dagoen ekimenara begira, "guri presio puntua eragiten digu, inork ez baitu zalantzan jartzen zerbait egongo denik". Udako oporraldia igarota elkartzen direnean, urtero errepikatzen dute "aurten bai?". Agerikoa izan da orain arteko erantzuna; bai, noski. Aurtengo "Amets" ere hilabeteak daramate onzen. "Atzean lan handia dago", nabarmendu dute dantza taldetik.

"GURI PRESIO PUNTUA ERAGITEN DIGU, INORK EZ BAITU ZALANTZAN JARTZEN ZERBAIT EGONGO DENIK"

Inauteriak igaro berritan

Oraingoan, gainera, "indarrak neurtu behar izan dituzte". Izan ere, otsailean estreinakoz herri inauteriak antolatzen datoz. Gustura dira lehen edizioak izandako harrerarekin. "Epe luzera begirako proposamena egin genuen. Eragile desberdinei gustatu zaiela ikusi dugu. Hurrengo urterako ideiak jaso ditugu".

Barne bidaia

Dantza Eguneko emanaldira itzulita, pista gehiegi eman

"HAMAHIRUGARREN HERRI IKUSKIZUNAK PERTSONA BATEN BARNE BIDAIA IRUDIKATUKO DU"

gabe, aurtengoak zer dakarren galdetuta, urte batzuetako komedia kutsutik zertxobait aldentzeko direla iragarri dute. Hamahirugarren herri ikuskizunak "persona baten barne bidaia" irudikatuko duela aurreratu digute Orbelditik.

Gainerakoan, musikarien eta dantzarien lankidetzatik plazaratuko dute ohi bezala, estreinakoz, "Amets". Aurten, berrikuntza bat; ahots berri bat batuko da emanaldira. Ezaguna izango zaizue irratihinetatik, baita herrian ere. Ikuskizunaren narrazio lanak egingo ditu Garikoitz Udabe Pagola herrikideak. Orbelditik eginiko ekarpenagatik eskertu nahi dute Udabe, baita noski, musikariak eta, nola ez, herriko dantzariak "guk proposatutako guztira animatzen direlako".

Ikuskizunak berak urteotan egin duen barne bidaia horri buruz galdetuta, aldaketarik ere izan du, dantza taldeak egindako bidearen islada izan da baita. "Herriko jende askok parte hartu du. Musikarietan egon da belaunaldi aldaketa. Dantzari dagokienean, erromeria taldea egonkorragoa da". Halere, talde guztietan izan da aldaketarik, nahiz Dantza Egunak eta Orbeldik bere bideari segida ematen jarraitu.

"Dantzak asko eman dit"

Adin tarte zabaleko herrikideen topagunea da Orbeldi eta horren erakusleihen izango da larunbateko jaialdia ere. Lagunak eta senideak dantza batean elkarrekin ikusi ahal izan ditugu urtero. Aurten, etxe bereko hiru emakume belaunaldi ariko dira Dantza Eguneko ekimenetan; Rosa Mendizabal, haren alaba Amaia Etxeberria eta haren biloba Araitz Portularrume. 2019-20 ikasturtean hasi zen Rosa betidanik izandako zaletasunari bide ematen. "Betidanik izan ditut gustuko euskal dantzak, batipat fandangoa eta arin-arina", azaldu dio Mendizabalek NOAUA!ri. Dantza girotik hurbil sentitu eta ibili da baina ez orain bezainbeste murgildua. Lehen, "beti inbidiaz izaten nintzen jendeak plazan nola dantza egiten zuen begira. Egunen batean ikasi behar nuela zin egiten nion neure buruari, baina beti gerorako uzten nuen".

Duela sei urte, ordea, plaza hartzeko urratsa ematea erabaki zuen eta ez da inolaz ere damutu. "Egin dudarik gauzarik hoberena da", ziurtatu digu Rosak. Argi adierazi digunez, "dantzak asko eman dit".

Orbeldiko dinamikatik haratago, Usurbilgo nahiz beste zenbait herrietako plazetan barnertzea ahalbideratu dio. "Duela pare bat urte hasi nintzen muxikoen emanaldietara joaten. Ahal badut ez dut igande bakar batean ere hutsik egiten, hemen inguruko herrietan daudela jakinez gero".

Horixe da baita, besteak beste, Orbelditik sustatu nahi izan dutena urteotan; "garrantzitsua da, txalo egiten aritu izan den emakumeen belaunaldia plazan protagonista bilakatzea". Horretan eragiten dihardu Orbeldik urte luzez, "balio handia du horrek" bilgunearen esanetan.

"Ikasi daiteke"

Rosa alabarekin batera jardungo da aurten, estreinakoz,



Rosa, Araitz eta Amaia, familia bereko hiru belaunaldietako emakumeak dabilta dantzan Orbeldin.

Dantza Egunean. Amaia Etxeberria haurtzarotik izan du lotura estua Orbeldirekin. Ikastola garaian dantzari gisa, gaztetan begirale moduan eta orain, hirugarrenez itzuli da aurten bilgunehonetara. "Emanaldiak ikusten aritu eta parte hartzeko gogotsu nintzen. Aurtengoan eman dut pausoa", eta estreinakoz "Amets" ikuskizunean plazaratuko da gainerako kideekin, tartean, bere amarekin batera.

Haurtzarotik orain arte Orbeldin izan den aldaketa nabarmenenaren lekuko zuzena izaten ari da hilabeteotan. Izan ere, lehen ez bezala, egun helduen dantzari taldeak ditu. Gustura dabil bertan Amaia. "Asko gustatu zaidana da, taldean gauden gehienak ez gara lela betidanik dantzariak izan. Asko behin ere dantza egin gabe zeudenak animatu dira". Garrantzitsua iruditzen zaio

"GARRANTZITSUA DA TXALOKA ARITUTAKO EMAKUMEAK PROTAGONISTA BILAKATZEA"

hau nabarmentzea. Izan ere, "kalean jendearekin hitz egiten hasi eta zergatik dantzara ez zara animatzen galdetuta, beti lehenengo erantzuna izaten da nik ez dut inoiz dantzik egin eta ez dakit". Hain zuzen, horretarako dago Orbeldiren eskaintza, Amaiaren hitzetan. "Ikasi daiteke. Gure taldean oinarritik hasten gara, ez gara hasten jakinda". Lehen ikasturte honekin gustura da Etxeberria eta "bai, jarraitzeko asmotan" dela jakinarazi digu.

Dantzarako gonbita

Rosa eta Amaia Dantza Egunari begira, "Amets" ikuskizuna prestatzeko azken entsegu saio orokorrean elkarriketatuta ditugu, Dantza Egunaren bezperatan honenbestez. Larunbateko estreinaldirako "gonbidatuak daude denak" adierazi digutenez. "Ikuskizun oso polita pres-

"IKASI DAITEKE. GURE TALDEAN OINARRITIK HASTEN GARA, EZ GARA HASTEN JAKINDA"

tatu dugu", Rosak iragarri duenez. Amaiak gogorarazi digunez, "niri halako emanaldietan piztu zitzaidan dantzarako harra. Ea jendea animatzen den. Datorren ikasturterako kide berriren bat animatuko balitz, ongi etorria izango da".

13. Dantza Eguna

Guztia prest du Orbeldi Dantza Taldeak. Goizetik gauerako jai giroa iragarri dute, segidan dituzue ekitaldiok.

Apirilak 5, larunbata

• **Goizean, 6.** Dantzari Txiki. Orbeldiko belaunaldi gazteenarekin batera, Zarauzko Jalgi eta Lezoko Murixka taldeak gonbidatu dituzte:

- **11:30** Haurren kalejira udalxetik.
 - **13:00** Haurren emanaldia frontoian.
 - **14:30** Herri bazkaria Askatasuna plazan.
 - **17:00** Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak Artzabalen.
 - **22:00** "Amets" ikuskizuna frontoian.
 - **Ondoren,** Laket erromeria Mikel Laboa plazan.
- Antolatzailea:** Orbeldi dantza taldea.

Zenbait ikastaro ate joka

KzGuneko saioak, intsektuen hotelak egitekoa, emakume eta gizon subjektutasunari buruzkoa, sorkuntzari lotutakoa... Denetariko ikastaro eskaintza izango duzue eskura datozen asteetan.

"Intsektuen hotelak egiteko tailerra

"Bioaniztasun dekalogo: intsektuen hotelak egiteko tailerra" antolatuta du Alkartasuna kooperatibak apirilaren 10era-ko, 14:30-16:30 artean, Agerreazpiko baratzetan. "Nola erakarri intsektu laguntzaileak (polinizatzaileak, beste intsektuak garbitzen dituztenak etab.) gure sagastira, baratzera edota lorategira", horri buruz jardungo dute, ingurumen zientzien dibulgazioan aditu Mateo Reglarekin. "Agerreazpiko baratzetan, eta Udarregi ikastolako ikasleekin eta etorri nahi duen guztiarekin batera, hain garrantzitsuak diren intsektuentzako hotelak egiteko tailerra burutuko da".

Saiorako izena doan eman ahalko da, Alkartasunako telefonoan (943 361114) edo alkartasuna.eus web orrian.

"Emakume eta gizon subjektutasunaren inguruko tailerra" Emakumeen Etxean

Apirilaren 11n izango da, arratsaldeko 17:30etan. "Egingo den tailer proposamenean, teoria feminista eta queerretan egin diren proposamen desberdinak ikusiko dira, zeintzuek tailerrean parte hartuko duten gizon, emakume zein pertsona ez binarioen arteko botere harremanen lanketa ahalbidetuko duten".

Tailerrera izena bideotatik eman ahalko da:

943 377 112
emakumeonetxea@usurbil.eus

"Psikomotrizitate erlazionala: aukera berdintasuna eta emozioak"

2025-26 ikasturterako eskaintzaren baitan, "psikomotrizitate erlazionala: aukera berdintasuna eta emozioak" izeneko formazio saioak iragarri ditu Hik Hasi-k Usurbilen. Irailetik ekainera izango dira, hileroko bi ostiral arratsaldeetan, 17:00-21:00 artean. Mapi Urresti psikologo, sexologo eta harreman psikomotrizistak gidatuko ditu. "Psikomotrizitateak haurrari segurtasun lekua eskaintzen dio eta horretarako beharrezkoa da formazio honetan lantzen diren eduki eta bizipen saioak egitea". Segurtasun leku horretan "haurrari emozio eta desioak" adierazita, "bere garapen afektibo emozionala orekatua bideratuko da". Eduki teoriko eta praktikoak nahiz bizipen eta jolas saioak tartekatuko dituzte formazio saio hauek.

Izen-ematea eta informazio gehiago esteka honetan: labur.eus/pil11odj

KzGuneko ikastaroak

Martxoan goizez irekiko dute, 9:00-13:00 artean, apirilaren 1etik aurrera, 16:00-20:00 ar-



Alkartasuna kooperatibak intsektuen hotelak egiteko tailerra antolatuta du. Apirilaren 10ean, Agerreazpiko baratzetan eskainiko dute.

tean. Honatx apirilean zehar izango diren ikastaroen berri:

- Apirilak 1-2, 18:00-20:00 "X (Twitter) zure Smartphonean".
- Apirilak 3-14, 16:00-18:00 "Kudeatu zaitez Google aplikazioekin".
- Apirilak 15-16, 16:00-18:00 "Online izapideak Osakidetza-ekin".
- Apirilak 28-30, 16:00-18:00 "Canva. Ikasi diseinatzen".

Informazio gehiagorako: Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net

"Xut, udaberriari keinu" tailerra Hitz Ahoren eskutik

Udarregi ikastolako guraso elkarrearen eskutik, apirilaren 22tik 25era, 10:30-12:00 artean

"HITZ AHOK IPUIN TAILERRA ANTOLATU DU 7-12 URTEKOENTZAT"

Udarregi ikastolan. "Natura-rekin bat eginez, udaberria interpretatuko dugu irudiz eta hitzez". Zehaztu dutenez, "banakako zein taldeko ariketak egingo ditugu hiru dimentsioetako irudiak sortuz. Tamaina handian margotu eta idatziko dugu. Animalia eta landare desberdinak azalduko dira bertan. Garaiari loturiko soinu eta onomatopeiek ere jantziko dute lana. Bukatzeko, ipuin ezberdinak sortuko ditugu". Zorione Mendezek bideratuko duen ekimena, 7-12 urte arteko zuzendua egongo da. Izena emateko formulario hau bete beharko da: <https://forms.gle/VzKPN1f-8XoyqvG8h9>

Kantu taldea

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak ikasturte berria abian du urtarritilaz geroztik. Ikastaroko saioak astelehenero izaten dituzte 18:00etan Agerialdeko musika gelan. Hileroko kantu-jira presatzen dute bertan.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867



Foru Ogasunak Errenta+ aplikazioa abiarazi du, "2024ko Errenta kanpaina modu erraz eta seguruan egiteko".

Iazko errenta ere euskaraz aitortzeko deia

Errenta aitortzeko kanpaina martxan da jada telefonoz, Internetez edota Aldundiak egunotan aurkeztutako Errenta+ aplikazio berriaren bidez.

Gipuzkoako Foru Aldunditik berri eman dutenez, "aurten, Foru Ogasunak 285.595 proposamen prestatu ditu guztira. Iaz baino 9.695 gehiago (+%3,5), eta 326.116 zergaduni zuzenduta daude (aitorpenen %67,7)".

Administrazioarekin euskaraz aritzeko deia

Testuinguru honetan, urtero moduan, tramitazio hau euskaraz egiteko deia egin du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Horren harira, iragarri dutenez, "herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezzen bultzatu nahian, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina abiaraziko dute apirilaren 1etik aurrera UEMAK eta hainbat erakunde publikok, elkarlanean". Horren bidez, "euskararen aldeko

hautua egitea da kanpaina honekin UEMAK eta udalek lortu nahi dutena". Izan ere, aipatu mankomunitatik aditzera eman dutenez, "errenta euskaraz egiten duen herritarren kopurua urtez urte gorantz ari den arren, errealitate soziolinguistikoak erakusten dituen datuetatik urrun dago oraindik".

Egun, oraindik ere, mankomunitatearen esanetan, "udalerririk euskaldunen etan egiten dira aitortpen gehien euskaraz, zenbakiak eta ehunekoak oso aldakorrek diren arren lurralde batetik bestera".

Euskaraz nola harremandu

Horretarako, kanpaina hau ikusgarri egingo duten kartelak jarri ditu aldundia eta udalen esku. Bertan, errenta euskaraz nola aitortu zehazten da.

Autolikidazio proposamenen kasuan, telefonoz nahiz Internetez onartzerakoan euskaraz egin nahi dela adierazi behar da "eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu".

Errenta mekanizatuaren kasuan, hitzordua eskatzera-koan erakunde horrekin euskaraz harremandu nahi dela adierazi behar da. Hala eginez gero, modu guztietan hizkuntza berean komunikatu ahal izango gara; aurrez aurre, telefonoz nahiz Internet bidez. "Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu", UEMA-tik argitu dutenez.

Errenta Internet bidez aitortu asmo duenak, errenta programaren euskarazko bertsioa jaitxi dezake saretik "eta hobetsitako hizkuntza atalean euskaraz hautatu". Bestela, "aholkularitzaren bat aukeratzetan baduzu, berariaz adierazi behar duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula. Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu".

2024ko errenta aitortzeko datak

- Martxoaren 31tik aurrera: autolikidazio proposamenak onartu ahal izango dira.
- Apirilaren 3tik aurrera: Zergabidea plataformaren bidez errenta telematikoki aitortu ahal da.
- Apirilaren 4tik aurrera: errenta presentzialki aitortzeko txanda erreserbatu ahal da.
- Apirilaren 8tik aurrera: errenta presentzialki aitortu ahal da.

Informazio gehiagorako:

- gipuzkoa.eus
- 943 113 000

Udalak galdetegi bat jarri du martxan, bakardade ez hautatuaren gaia aztertzeko xedez

Herritarrek bakardade ez hautatuaren inguruan duten pertzeptzioa jaso nahi du udalak, eta galdetegi bat prestatu du horretarako. Zaintza ekosistemaren lanketatik sortu da gaia aztertzeko beharra, eta lehenengo urratsa herritarren ikuspuntua jasotzea izango da. Galdetegiak anonimoak izango dira, eta Internet bidez edo paperean erantzun ahal izango dira: etxez etxe banatuko da, Udalberri aldizkariarekin batera. Papereko erantzunak herriko hainbat udal-ekipamendutan eta merkataritza lokaletan utzi ahal izango dira, apirilaren 16ra bitartean.

Covid19-aren itxialdian, zaintza eredu berri baten beharra nabarmen geratu zen orduan, eta horri erantzuteko modu gisa auzo-zaintza sareak sortzeko aukera jaso zuten.

Orain, proiektua definitu aurretik, herritarrek bakardade ez hautatuaren inguruan duten pertzeptzioaren berri izan nahi du udalak.

Kutxen kokapena

Galdetegiak uzteko kutxen kokapena: udaletxea, Potxoenena, Oiardo kiroldegia, Emakumeon Etxea, osasun zentroa, Artzabal, Opil Goxo, Otar-Goxo, Kaffa kafetegia, Laurok liburutenda, Arruti harategia, Aginagako eta Santueneko jubilatuen elkarteak, Egurtzegiko taberna, Zubietako Alamandegiko taberna, Esnaola janari denda.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42

TXAPELDUN
ARDANGELA

EGUNEKO MENJUA
PLATERAK
OGITARTEKOAK
RAZIOAK
ARROZAK
OILASKO ERREA

Muna lurrea 2, 943 49 88 83

Antxeta
TABERNA

egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Daniel Palacios bere izena daraman onddoa du

Daniel Palacios Quintano herrikidearen izena jarri diote onddo espezie bati. Bizitza osoan eginiko ekarpenari merezitako aitortza egin nahi izan diote modu horretan. Bere izena betiko geratu da iltzatua mikologiari.

Inork gutxi esan dezake bere ibilbideari gorazarre egiteko, egindako lan eta ahaleginaren eskertza moduan, bere izena jarri diotenik kale edo plaza bati. Are gutxiago, ordea, onddo espezie bati. Hori hala izateko ohorea du, ordea, Usurbilgo herrikide batek; Daniel Palacios Quintanok hain zuzen. Mikologiari eskaini dio bere bizitza eta haren eskertza moduan, Nafarroa hegoaldean, Ribaforadan, Ebro ertzean aurkitutako espezieak bere izena izango du betirako; "Coprinospis Palaciosii" hain zuzen. Bertan eta Bertiz inguruan ere aurkitu omen dute espezie berri hau. "Espezieen erregistroan dago. Eternitate-rako nire izena mikologiari lotua egongo da", adierazi dio omenduak NOAUA!ri.

"Ohore handia da"

Esan beharrik ez da, bere abizenak espezie hori izendatuko zuela jakitean omenduak berak sentiturikoa. "Ezusteko handia izan zen. Ezinezkoa zela pentsatu nuen hasieran, baina ez. Ohore handia da", adierazi dio NOAUA!ri. Horrekin batera, ezohikoa dela ere azpimarratu digu. Izan ere, "oso gutxiei jartzen die zientzialariaren izena eta hala egiten dutenean, hil ostean izaten da, bere omenez. Nire kasuan, zortea dut izendapen honetaz bizirik naizela goza dezakedalako".

Mikologia gaietan gogotik aditua eta aritua da Palacios. Hamaika kongresu eta jardunaldietan parte hartutakoa da hemendik gertu, nahiz European zehar. Tripaki mi-



Daniel Palacios Quintanoren izena jarri diote onddo espezie berri bati.

kologia taldea eta "Izadi" dibulgaziorako aldizkaria sortu zituen, Aranzadi zientzia elkarteko mikologia saila zuzendu du. Egindako lana ere erakusgai jarri izan du sarritan, trebakuntza saioak biderratzearekin batera; Loiola K.E.-k iragan udazkenean antolaturiko 25. Mikologia jardunaldietan esaterako. Kultur elkarte horrekin eta bere kokagunearekin lotura estua du Palacios. "Inon baino kasu gehiago egin ditate. Prestigio handia hartu dute". Horren erakusgarri, aipatu jardunaldietako bere ikastaroek duten harrera edota erakusketak. Bildumak ikusgai jartzerakoan bere beste dohainetako bat eraku-

tsi izan du; marrazketarena. Gaztetatik datorkiona, "Burgosko marrazketa eskolara joan nintzelako".

Lau mila identifikaziotik gora

"Jende asko ezagutu dut. Mikologo onenak ezagutu ditut. Haiengandik asko ikasi dut", oroitarazi digu. Bere esanetan, "inor ez da jaiotzen jakinda,

"ESPEZIEEN ERREGISTROAN DA. BETIKO NIRE IZENA MIKOLOGIARI LOTUA EGONGO DA"

denborarekin ikasi behar izaten da, baina ondo ikasi behar da". Burgosen jaioa, hamar-kadak daramatza Usurbilen bizitzen. Zaletuentzako nahiz dibulgaziorako hainbat liburu idatziak ditu, tresna baliotsuak alor honetan arakatzen hasi nahi zuenarentzat. Berea bezalako gidarik ez omen da. Izan ere, babestua dago mendira onddo bila eskuartearen eraman nahi duenarentzat. Dibulgatzaile lan horretan egindako ekarpena nabarmendu du. "Irakastea gustuko dut. Beti pedagogiara dedikatu izan naiz".

Hori dena egiteko, halere, garrantzitsuena, ezagutza landu du eta eskuartearen izan du zenbaezina den onddo kopurua. Argi nabarmendu nahi izan digu, "nire eskutik pasa ez direnak ez ditut jartzen inoiz". Hori hala izanda ere, "lau milatik gora espezie identifikatuak ditut" adierazi dio hedabide honi. Lan hau egiteko, azaldu digunez, "aldeztatik, hiru urtez leku berdinean agertu behar dute edo bestela aldizka lau urteko tartean".

Jarri dizkigun adibideen artean, hurbileko bi espezie inbaditzaileen berri segidan. Jatorriz Madagascarrekoa izan, Frantzia hegoaldera heldu eta handik gure artera iritsitakoa; "Andatza josia dago". Bigarrena, gaztetan, artean, "ezkongabea nintzela" identifikatu ahal izan zuena Villabona aldean, jatorriz Australiakoa. "Hemen, leku guztietan dago. Autoktonoa, bertakoa lekualdatu du".

Egun, "tristuraz bizi dut, onddo bila" joan ezina, baina bere bizitzako ardatz nagusietakoa izan duen mikologia munduan beti bada zereginik eta aipatu digunez, espezieen generoak aldatzen doazela eta "sistematika ordenatu beharra" dagoela adierazi digu, aurrerantzean bere izena eta egindakoaren aitortza betiko onddo espezie batean jasoa geratu ostean.

NOAUA Usurbilgo herri hedabideak behar ditu:
KAZETARIA eta PUBLIZITATE ARDURADUNA

BETE BEHARREKOAK:

- Kazetaritza, komunikazio edo pareko unibertitate-titulua.
- Publizitate eta diseinu arloko ikasketak.
- Euskarazko maila handia, ahoz zein idatziz.
- Interneten jakintza: webgintza, sare sozialak...
- Gidabaimena.

BALORATUKO DENA:

- Lan eskarmentua komunikazio alorrean.
- Irudiak grabatu, editatzeko eta argazkiak ateratzeko gaitasuna.
- Publizitate arduradunaren kasuan, maketaziorako eta diseinurako programen ezagutza.
- Usurbilgoa edo Beterri-Buruntzako izatea.
- Lan taldean aritzeko trebetasuna.

Curriculumak aurkezteko epea: 2025eko apirilaren 26a

Nora bidali: erredakzioa@noaua.eus

ORIANTE BHI

BATXILERGOKo matrikulazio epea MARTXOAK 31 - APIRILAK 11



- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetza
- Agenda 2030
- Orientazio akademikoa
- Ekintza osagarriak
- Mugikorrik gabeko ikastetxea
- Hezkuntzako eramangarriak doan

Zerbitzu publikoko bokazioa duen kalitatezko hezkuntza

Euskalduna, eleanitza, demokratikoa, parekidea, komunitarioa eta izaera laikoa duena.

Hezkuntza aktiboa bultzatuko duena.

Gizarte hobe eta bidezkoago batekin konpromiso indartua izango duten ikasleak heziko dituen.

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



ORIANTE
Institutua

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa) 

Buenos Aires aldapa 1, Lasarte-Oria

943 899 492 

info@oriarte.eus 

<https://oriarte.hezkuntza.net/> 

Udajolas eta Oiardoko udako ikastaroetan izena emateko garaia

Oiardo kiroldegiko udako ikastaroetan nahiz Udajolasen matrikulatzeko epea berbera izango da: apirilaren 3tik 16ra egin ahal izango da izen-ematea.

Ziortzaren udako kanpaldian edota Usurbilgo udalerria kide duen Udallerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Salto udaleku ibiltarrietan izena emateko epea amaitu da. Baina ekimen gehiago ere izango dira haur, gazte nahiz helduentzat. Eskaintza horren berri eman du Usurbilgo Udalak.

Kiroldegiko kirol eskaintza

"Ariketa fisikoa egitea sustatzeko helburuz, udaleku Kirol sailak zenbait ikastaro eskaini ohi ditu, uztailean: aretoko zein uretako ikastaroak daude aukeran, haur, gazte eta helduentzat prestatuak". Uztailaren 1ean hasi eta hilaren 30era arteko iraupena izango dute trebakuntza saioek. Uztailaren 2ko eta 25eko jaiegunetan ez da ikas-

tarorik izango ezta haurrei zuzenduriko saiorik uztailearen 3an eta 4an, Usurbilgo festak tarteko.

Udajolas

Udajolas ere iragarri du Usurbilgo Udalak, NOAUA! Kultur Elkartearekin batera. Gogoan izan, udalekuok 4-12 urte arteko haur eta gaztetxoei (HH3-LH6) zuzenduak daude.

Adi, aurtien aldaketa izango da egutegi aldetik. Normalean, Usurbilgo festak amaitu eta biharamunean ematen zaio hasiera Udajolasi eta uztailaren 30ean amaitu izan ohi da. Aurtien, aurreko urteetan baino lehenago abiaraziko da Udajolas; ekainaren 30ean. Bukatu, aldiz, orain arte bezala, uztailaren 30ean amaituko da. Baina 2025eko



Udajolas 4 eta 12 urte arteko gaztetxoei zuzendutako aisialdi eskaintza da.

Usurbilgo jaiak, uztailaren 1etik 6ra ospatuko direnez, uztailaren 2tik 4ra ez da Udajolasik izango.

Udaleku hauei buruzko xehetasun gehiago ekainaren 17an jasoko dituzte izena emandako gaztetxoen gurasoek, arratsaldeko 17:00etan Sutegiko auditorioan.

Kiroldegiko nahiz Udajolaseko izen-ematea, online

Eskaintza batean zein bestean emateko epealdi bera finka-

tu du Usurbilgo Udalak. Oiardo kiroldegiko ikastaroetan nahiz Udajolasen apirilaren 3tik 16ra matrikulatu ahalko dute interesdunek. Segidan dituzuen esteken bidez, formulario bana zabalduko zaizue:

- Udajolasen izena emateko lotura:

labur.eus/vuaxpbwe

- Oiardo Kiroldegian, udan gaztetxoei eskaintako ikastaroetan izena emateko lotura: labur.eus/r7x2fhkv

Hezkuntza arloko matrikulazio epealdia ere zabalik da

Haur Eskola

0-3 urte artekoek zuzenduriko hezkuntza eskaintzan 2025-26 ikasturterako matrikulazio epealdia zabalik da eta apirilaren 11ra arte luzatuko dute tarte hau. Deialdia, 2023tik 2025eko azarora arte jaiotakoei zuzendua dago.

Matrikulazioa osatzeko nahiz argibide gehiago jasotzeko, 943 374 061 telefonora zenbakira deitu (8:30-12:00) edo haureskola@udarregi.eus e-posta helbidera idatzi.

Haur Eskolaren (Ugarte, 9) ordutegia hau da: goizeko 8:00etatik 16:00ak arte.

Oriarte BHI

Lasarte-Oriako eta Usurbilgo institutuan matrikulatzeko epeak apirilaren 11ra iraungo du. Tarte horretan, ate irekien jardunaldia antolatu dute; apirilaren 2an hain zuzen, 17:30-18:30 artean, Larreako-txe eraikinean (Lasarte-Oriako Buenos Aires aldapa, 1). Argibide gehiagorako:

- 943 899 492
- info@oriarte.eus
- oriarte.hezkuntza.net

Usurbilgo Lanbide Eskolako ateak zabalik jardunaldiak

Ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte egunotarako:

[Apirilak 3, osteguna](#)

- 17:00 Goi maila eta Espezializazioa.

[Apirilak 5, larunbata](#)

- 10:00 Erdi maila.
- 11:30 Goi maila eta Espezializazioa.

[Apirilak 8, asteartea](#)

- 17:00 Erdi maila.



Haur Eskolako matrikulazioa apirilaren 11n amaituko da.

[Informazio gehiagorako:](#)

- 943 364 600
- lhusurbil.eus

Arantzazuko irteeran izena emateko epea hilaren 12an itxiko da

Hamarkada luzeetako ohitura berrituko dute apirilaren 17an. Inoiz baino partehartzaile gehiago espero dituzte aurtengo edizioan.

Usurbildik Arantzazura tipi-tapa joateko deia egin dute aurtun ere. Urte luzeetako ohitura berrituko dute beste behin; Usurbildik Arantzazurainoko bidea oinez osatzea, datorren udaberriko oporraldian, apirilaren 17an. Antolatzaileen esanetan, azken urteotako parte hartzaile gehien izango ditu aurtengo edizioak.

63 kilometroko ibilbidea

Beti jaieguna izaten den ostegun hori baliatzen dute txango hau egiteko. 63 kilometro luze dituen bidea osatzeko (2.700 metroko desnibela) prestatzen hasteko deia egin dute antolakuntzatik. Aipatu moduan, apirilaren 17rako finkatu dute irteera. Gogoan izan, goizaldeko 4:45 aldera biltzen dira frontoi

atzean, 5:00etarako prestatu eta ibilaldiari ekiteko. Tarte horretan, egunaren amaieran Arantzazutik itzultzeko autobusean aldatzeko arropa uzten da. Ibilbidean zehar, zenbait geldialdi egiten dituzte; hala nola, Mandubian hamai-ketakoa, Zumarraga parean arropa aldatzeko aukera, Legazpin bazkaltzeko geratzen dira eta Arantzazura helduta askari baten bueltan borobiltzen dute eguna. Antolakuntzatik aurtengoan ere helarazi duten ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo.

Izen-ematea, telefonoz

Informazio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak



Apirilaren 17an Usurbil eta Arantzazu arteko ibilbidea osatuko dute.

deitu dezala 662 039 829 telefono zenbakira. Adi, izena emateko epealdia finkatua du antolakuntzak. Apirilaren 12a baino lehen bideratu beharko da.

Lau hamarkadatik gora

Hamarkada luzeetako usadio zaharrari eutsi dio belaunaldi artekotasuna ere sustatu duen hitzordu honek. Duela lau hamarkada inguru "3 lagun hasi ziren ibilbide hau egiten" antolatzaileen esanetan. Gero, pixkanaka jende gehiago batu zen. Usurbilda-

rrak, eta baita inguruko herrietako mendizale gehiago ere; Donostia, Amasa, Zizurkil edota Tolosa aldekoak. "Berrogeitik gora lagun joatera heldu ginen", diote. Bidean beraz, jende berria ezagutzeko aukera izan dute.

"HIRU LAGUN HASI GINEN. AZKENALDIAN, 40TIK GORA LAGUN JOAN IZAN GARA"

Lur Errekondoren taldea "Harri Herri" txapelketako finalerako sailkatu da

Astelehenean eskaini zuen Euskal Tebistak harri-jasotze txapelkeko lehen finalerdia. Lur Errekondoren taldeak finalerako txartela eskuratu zuen.

Emakumezkoen bi talde lehiatu ziren lehen finalerdian; Ergobia eta Ibiur. Ibiur taldeko kapitaina Lur Errekondo usurbildarra zen, Karmele Gisasola Ergobia taldekoena.

Bi altxadi gehiagorekin gailendu zen Ibiur. 31-29 izan zen azken emaitza. Ondorioz,

Ibiur izan da "Harri Herri" txapelketako finalerako lehen sailkatua.

Apirilaren 14an eskainiko du Euskal Tebistak emakumezkoen bigarren finalerdia (Ulia eta Mollari taldeen artekoa) eta final handia hilaren 27an.

Tarte horretan, gizonezkoen arteko lehia ere jokatu da. Izan ere, aurtun ere 32 harri-jasotzailek hartuko dute bertan parte: gizonezkoak 16, emakumezkoak beste 16. Launa



Ezkerretik bigarrena da Lur Errekondo, bere taldekoekin garaipena ospatzen.

taldetan lehiatuko dira, lau gizonezkoetan eta lau emakumezkoetan. Nobedadea honakoa, kapitainen aldetik

dator. Emakume taldeen kapitainak ere emakumezkoak izango baitira. Horien artean da Lur Errekondo.

UDAKO

KIROL ETA AISIALDI

JARDUERAK

HAUR ZEIN HELDUENTZAT

Izena emateko epea: apirilaren 3tik 16ra

2025



udajolas

HH3-LH6 urte
bitarteko haur
eta gaztetxoei
zuzendutako
euskarazko
udalekua

KIROL
JARDUERAK

Aretoko zein uretako
ikastaroak, haur, gazte eta
helduentzat, uztailean

Oharrak:

- Ezingo da udalak ordutegi berdinean antolatzen dituen bi jarduera desberdinetan izena eman.
- Zerbitzuen zentzuzko erabilera bermatze aldera, haur guztien asistentzia datuak jasoko dira.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Udajolas: elkartea@noaua.eus / 688 807 336 · Kiroldegiko ikastaroak: kirola@usurbil.eus / 943 37 24 98



Usurbilgo Udala



Zigilu honek "ikastetxeek zientzia, teknologia, ingeniari-tza eta matematikan egiten duten lana aitortzen du".

"Elkarlanari esker lortu dugu 'STEM proficient' zigilua"

AINHOA BEGIRISTAIN UDARREGI IKASTOLAKO ADMINISTRARIA

Udarregi ikastolak *STEM proficient* izendapena jaso du eta ez da kontu txikia. Zientzia eta teknologia arloetan berrikuntzak sustatzeko garaian, "Udarregi ikastolak ahalegin berezia egiten duela" adierazten du.

STEM Proficient zigilua eskuratu berri duzue. Nork ematen du zigilu hau eta zer irizpideen arabera ematen da?

Zigilu hau European Schoolnet erakundearen ekimen bat da, Scientix (STEM hezkuntza sustatzen duen Europako plataforma) eta STEAM Alliance erakundeekin lankidetzan. Europako ikastetxeek STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) hezkuntzan egiten duten lana aitortzea eta hobetzea da zigilu honen funtsa. Zigilu hau eskuratzeko, ikastetxeek aurrera eramaten dituzten STEM proiektuak aurkeztu behar dituzte

eta ebaluatzaileek proiektu horiek aztertzen dituzte.

Proiektuak baloratzeko garaian, ze irizpide hartzen dituzte kontuan?

- Lidergoa eta ikuspegia: Eskolako zuzendaritzak eta irakasle-taldeak STEM arloen garapenean duten konpromisoa eta ikuspegi estrategikoa.

"IKASLEEN MOTIBAZIOA ETA PARTE-HARTZEA HARTZEN DIRA KONTUAN"

- Curriculum eta ebaluazioa: Arlo zientifiko-teknologikoak nola txertatzen diren ikasketa-planean, bai irakaskuntzan bai ebaluazioan.

- Irakasleen prestakuntza: Irakasleek STEM gaietan jasotzen duten etengabeko formazioa, metodologia berriak aplikatzeko gaitasuna barne.

"IZENDAPEN HONEK BIDE ONETIK GOAZELA FROGATZEKO BALIO IZAN DIGU"

- Azpiegiturak eta baliabideak: Eskolak dituen instalazio, laborategi, tresna digital eta baliabide teknologikoen egokitasuna, bai eta horien kudeaketa ere.

- Elkarlana eta sareak: Ikastetxeak kanpo eragileekin (unibertsitateak, enpresak, zentro teknologikoak...) duen harremana eta proiektuetan parte-hartzea.

- Ikasleen motibazioa eta parte-hartzea: STEM arloko interesa pizteko egiten diren ekintzak, esperientzia praktikoak, proiektu lankidetzak edo hezkuntza-berrikuntzari lotutako beste jarduerak batzuk.

Competent zigilua bazuen lehenetik Udarregi ikastolak. Orain STEM Proficient zigilua iritsi da. Horrek zer esan nahi du, Udarregiren hezkuntza eskaintzak urrats bat aurrera eman duela?

STEM Proficient zigilua lortu ahal izateko, beraiek eskuragarri jartzen duten plataforman hiru proiektu gutxienez argitaratu behar dizkizute ebaluatzaileek eta gure kasuan hala izan da.

Aurkeztutako proiektuek goian aipatutako ezaugarriak eduki behar dituzte. Errekonozimendu honek gure autoebaluaziorako balio izan digu eta bide onetik goazela frogatzeko, bai eta ikastolak ahalegin berezia egiten duela zientzia eta teknologia arloetan berrikuntza sustatzeko ere.

Udarregi ikastolako zuzendaritzarena, irakasleena, ikasleena... Izendapen berri hau eskuratu ahal izateko, noren ahalegina nabarmendu behar du litzateke?

Elkarlanean oinarritutako lorpena izan da. Badira urte batzuk bide bat egiten hasi ginela STEM proiektuak garatu eta txertatzen eta edonon elkarlana funtsezkoa izan da akreditazio hau lortzeko.



Claudine Arhantzet, Darlene Gijuminag eta Mixel Etxekoparrek 'Lurretik lurrera' emanaldia eskainiko dute Sutegin.

"Zuberoako eta Mikmak nazioko kantak eskainiko ditugu"

MIXEL ETXEKOPAR MUSIKARIA

"Bi xiberotar gira, Claudine Arhantzet kantaria eta ni, eta Quebecoko Mikmak populuko andere kantari eta poeta ederra, Darlene Gihuminag". Hirukote hau Sutegin arituko da apirilaren 12an. Emanaldi honekin batera, bi liburu aurkezpen ere antolatu ditu Nafartarrak taldeak.

Bi xiberotar eta quebecar bat batu zarete 'Lurretik lurrera' izeneko emanaldian. Nola sortu zen zuen arteko hartuemana?

Darlene Gijuminag Mikmak nazio autoktonoko emazte artista da, Gaspesiako lurraldekoa, Quebec-en.

2017an han izan ginen, Euskal Barrokensemble taldearekin batera. Bertan topo egin genuen eta elkarrekin aritu ginen.

2022an, Etxepare Institutuak eta Quebec-eko gobernuak elkarlanean "Saisons Québec Pays Basque" eraiki zuten, kultura trukaketa anitz proposatuz, literatura, dantza, musika, kantua... Eta hortan

sartu ginen sorkuntza bat egiteko Euskaldunak eta Mikmaken artean.

Asteotan hainbat jaialdi eskainiko dituzue Euskal Herrian. Saio hauen aurretik Montrealean aritu zineten. Nolako harrera egin zitzaizuen? Quebec-en badute

"ASPALDITIK HARREMAN SENDOA DA XIBEROA ETA USURBILEN ARTEAN"

euskal musikaren eta euskal kulturaren berri, ezta?

Montreal hirian "Centre des Musiciens du Monde" kultur etxea dute eta han egonaldia egin genuen 'Lurretik lurrera' emanaldiaren sortzeko. Oso etxe eder eta bizia dute, munduko musikari ezberdin anitz

"DARLENE GIHUMINAG KANTARIA ETA POETA MIKMAK TRIBUKO KIDEA DA"

ibiltzen delako urte guzian, transmisioa, topaketa eta sorkuntza landuz. Haiek ziguten eskaini xede horri lotzea. Egia erran, Munduko Musikarien Etxe horretan euskal dantza ikastaldiak antolatzen dituzte aurten, eta 2025eko gure emanaldian partaide ziren Montrealeko euskal etxeko kideak.

Dena den, han denek dakite euskal kulturaren berri zerbait, lekuak daude "Ile aux Basques" lekuko, eta bertako historia ezagutzen dutenek badute euskaldunen berri, aspalditik Ternua eta San Laurentx itsas adarrean zebiltzako.

Zure berri badugu Usurbil aldean, maiz etorri zarela hona. Baina nor da Claudine Arhantzet kantaria?

Nik suerte handia estimatzen dut aspalditik harreman sendoa baita Usurbil eta Xiberoaren artean, edozein ekimenetarako beti harrera beroa, goxoa eta "etxen bezalakoa" izan baitugu zuenean!

Claudine Arhantzet (Atharratze, 1985) emazte kantari ederra da. Aspalditik dabil kantuan, hamaika proiektutan sartu izan da aspalditik, kantari talde (Hor Hor hirukotea, AH ahots hutsezko talde berria ere, besteak beste...). Xiberoan gaitzeko dohaina du gure ondarean oinarrituz eta sorkuntzaren hegala idekiz zabal. Koro herrikoiak eramaten ditu orain Zuberoako herrietan.

Darlene Gihuminag poeta eta kantaria Quebec-eko MikMak tribuko kidea da. Bere ibilbideari eta jatorriari buruzko azalpen txo bat emango al zeniguke?

Darlene Gihuminag Mig'mawag edo Mikmak nazio kidea da. Bere burrasoak borrokatu ziren oinarritzko eskubideen berreskuratzeko 1970. hamarkadan, hala nola ehiza eta arrantza, debekatuak baitziztaizkien orduan, haietarik bizi zirelarik! Eta berak dion bezala, hitzez eta kantuz borrokatzen da orain bera. Ata-

—> bal eta kantua erabiltzen ditu arbasoen bozaren zabalteko. Transmisioaz ere arduratzen da asko orain, autok-tono gazteen beren kulturari ber-konektatzeko, zeren desmasi handiak egin eta egiten ditu oraindik nazio hauen bereizketak. Kantua tresna politiko gisa erabiltzen du ere.

Usurbilen ere eskainiko duzue 'Lurretik Lurrera' emanaldia. Ze egunetan eta zein tokitan arituko zarete?

'Lurretiklurrera' Sutegi aretoan izanen da, apirilaren 12an, arratsaldeko 19:00etan.

Zer nolako errepertorioa eskainiko duzue Usurbilgo saioan?

Gure emanaldia sortu genuenean, arlo komunak jorratu genituen, hala nola izadia, leku kultoen garrantzia (adibidez, Maidalena mendiko leku kristautua gurean, eta berdin beren herrian...). Zuberoko basa ahaide kantuak erabiltzen ditugu. Baina Mik-




"Darlene Gihuminag Mikmak nazioko kide da. Bere burrasoak borrokatu ziren oinarriko eskubideen berreskuratzeko".

mak kantuetan sartzen gara ere, polifonia erabiliz. Tresna nagusia boza bada ere, nik flautak erabiltzen ditut, eta atabala du lagun Darlenek, guk sokazko ttuntunak ditugun bezala.

'Lurretik lurrera' saioa

- Apirilak 12 larunbata.
- 19:00etan, Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro. Lizardin eta egunean bertan, Sutegin.
- Antolatzailerak: Nafartarrak.

"ATABALAREKIN ETA KANTUAREKIN, ARBASOEN BOZA ZABALTZEN DU DARLENEK"



'Kepa Anabitarte. Bizitza bat herriari eskainia' liburuaz arituko dira apirilaren 8an.

Eneko Bidegainek Kepa Anabitarteren inguruko biografia aurkeztuko du

Kepa Anabitarte (Pasaia, 1934) Euskal Herriaren askatasun egarriak mugitu du bizitza osoan. Eneko Bidegainek osatu duen biografia "Euskal Herriko azken ehun urteetako kronika politiko bat da, oroz gainetik", Pamiela argitaletxeak aditzera eman zuenez. "Bidean ezagutu dituen hainbat eta

hainbat erreferentziako laguni buruz eta gertakari politiko, ekonomiko eta kulturez ari da liburuak".

Apirilaren 8an Potxoenean egingo den solasaldian, Kepa Anabitarte hobeto ezagutzeko gakoak eskainiko ditu Eneko Bidegainek. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da saioa.



Joxe Mari Esparzak hitzaldia eskainiko du apirilaren 10ean, 19:30ean hasita.

'Zumalakarregi eta Pirinioetako Errepublika' liburuaz aztergai

Tomas Zumalakarregi 1834an penintsulako lau euskal probintzietan Errepublika Federal independente bat aldarrikatu zuela hizpide duten dokumentu berrien agerpena. Horixe da Joxe Mari Esparzak plazaratu duen liburuaren hari nagusia. Txalaparta argitaletxearen esanetan, "XIX.

mendeko foruez eta euskal independentismoari buruz esan den guztia hankaz gora jartzen duen liburuak" da hau. Jose Mari Esparza hain zuzen, Txalaparta argitaletxe-ko zuzendaria izan zen 1988tik 2023ra arte. Apirilaren 10ean Sutegin izango da, eta 19:30ean hasiko da bere hitzaldia.



GuraSOS elkartearen lehendakari Joxe Mari Izeta eta abokatu Joseba Belaustegi, aste hasieran Donostiako agerraldian.

Konstituzio Auzitegiak arrazoia eman dio GuraSOSi

GuraSOS elkartearen esanetan, "Espainiako Auzitegi Konstituzionalak argi dio GuraSOS seme-alaben osasuna, ingurumena eta gizartea orohar defendatzen ari dela legitimoki". Erabaki honek "ateak ireki dizkigu".

Aurrerapauso garrantzitsua dela diote "auzo elkartearen eta taldeekologisten ekimenerako". Espainiako Konstituzio Auzitegiak arrazoia eman dio GuraSOS-i, Zubietako erraustegiaren ingurumen baimen bateratuari dagokion auzian. "Auzitegi Konstituzionalak argi dio, GuraSOS seme-alaben osasuna, ingurumena eta gizartea orohar defendatzen ari dela legitimoki".

Zehazkiago esanda, auzitegi horretako bigarren aretoak "ahobatez bermatutako epaian, GuraSOS babesten du Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioa (GHK) eta EAE-ko Justiziaren aurrean". Ingurumen gaitetan, eta zehatzago, Zubietako erraustegiaren auzian justiziara jotzeko, defentsarako duen "legitimitate

osoa" aitortu dio, elkarteari berari tutoretza legal eraginkorrerako duen eskubidea urratu zaiola ebaztearekin batera. Epai horrek 2021eko martxoaren 29an Euskadiko Auzitegi Gorenak kaleraturiko epaia baliogabetu du "eta jarduketan atzeraeragina egitera eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa izapidetzeko onartzerara behartzen du GuraSOSek Zubietako erraustegiari Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) ematearen aurka 2016an aur-

"OSASUNA, INGURUMENA ETA GIZARTEA DEFENDATZEN ARI DA LEGITIMOKI"

keztutako epaian". Ondorioz, epai horren arabera, GuraSOSek Zubietako erraustegia martxan egotea ahalbidetzen duen Ingurumen Baimen Bateratuari (IBB) lotuta aurkezturiko helegitea izapidetzea onartu beharko du Euskadiko Auzitegi Gorenak. "Errekurtsoa duela bederatzi urteko gertaeretatik dator, eta gaur egun, erraustegiaren funtzionamendua legeztatzen duen IBB-ari eragiten dio. EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak har dezakeen

"ZUBIETAKO PLANTAREN JARRAIPENA JOKOAN EGONGO LITZATEKE"

erabakiari buruzko ziurgabetasunak daude, hau da, erraustegiak jarduten duen IBBa legezkotzat edo legez kanpotzat joko duen". Legez kanpotzat joko balu, "Zubietako hondakinak tratatzeko plantaren jarraipena jokoan egongo litzateke".

"Ateak ireki dizkigu"

GuraSOSetik adierazi dutenez, Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Hondakinaren Kontsorzioa (GHK), Eusko Jaurlaritza eta Euskadiko Auzitegi Nagusia "gizarteari ate guztiak ixten saiatu dira, osasuna eta ingurumena defendatzea oztopatzeko; baina orain Konstituzio Auzitegiak ireki dizkigu". Elkarteak defentsarako duen eskubidea babestu du Espainiako Konstituzio Auzitegiak eta dioenez, epaiak elkartearen helburuak islatzen ditu. Epai honen ostean, bederatzi urteko ibilbidea eta gero, EAE-ko Auzitegi Nagusiak Zubietako erraustegiari emandako aipatu baimenaz erabaki beharko du. Izan ere, bi galderei erantzun beharko diela ohartarazi du: "Ingurumen Baimenak behar bezala babesten al ditu osasuna eta ingurumena? Eta Europako lege, zuzentarau eta jurisprudentzia errespetatzen al ditu?".

Europa aipatuta, "epai hau, 2024ko ekainaren 25eko Europar Batasuneko Justizia Tribunalaren sententziarekin batera irakurri behar da. Giza Eskubideen funtsezko helburu gisa, giza osasuna babestea jarri duena, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean bermatuta. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, instalazioaren jarduerak ingurunean eta pertsonen osasunarengan duen eraginak, ingurumen-baimenaren prozeduran parte izan behar dute. Eta aurreikus daitezkeen substantzia kutsatzaileez gain, instalazioak emititu ditzakeen eta zientifikoki kaltegarritzat jotzen direnak kontutan hartu behar ditu".



Xendra taldeko kideak ibaian gora. Tartean, Ion Galbete usurbildarra.

"Xendra taldearen estiloa zaila da deskribatzeko, musika lasaia egiten dugu"

ION GALBETE XENDRA MUSIKA TALDEKO KIDEA

Badira bost urte Ion Galbete usurbildarra Uhartera bizitzera joan zela. Lagunak zituen bertan, eta haiekin musikan lehen pausoak eman ondoren, Xendra taldea osatu eta diskoa atera dute. Larunbat honetan eskainiko dute lehen kontzertua, iluntzeko 20:00etan Huarteko Kultur Etxean.

"Bihia" diskoa plazaratu zenuen joan zen urtean. Nola deskribatuko zenuke Xendra musika taldearen izaera?

Genero baten barnean kokatzea zaila da, baina musika lasaia da. Pop-rocketik hartzen du zer bait, baina orokorrean, lasaia dela esango nuke.

2020an sortu zineten. Lau urte hauetan zer egin duzue diskoa atera bitarte?

Uharteko lagunekin askotan egin izan dugu musika. Gazteagoa nintzenean, eta Usurbilen bizi nintzenean ere bertara joaten nintzen, baina behin ere ez genuen kontzerturik eman. Duela 5 urte edo, Uhartera joan nintzen bizitzera eta entseguak egiten aritu ostean, diskoren bat grabatzea edo erabaki genuen. Asmo ikaragarririk gabe, baina oso pixkanakako prozesuan.

Duela bi urte hasi zen proiektua, nolabait. Taldekide berriak

"HILABETE BARRU LEHEN KONTZERTUEKIN HASIKO GARA ETA BERTIGO PIXKA BATEKIN GAUDE"

sartu ditugu eta egun, 3 neska eta 3 mutilek osatzen dugu taldea. Hala, Irunberrin zortzi abestiko diskoa atera genuen joan zen urtean. Hilabete barru kontzertuekin hasiko gara.

Kontzertuak maiz eskaintzen dituzue?

Ez. Diskoa grabatu eta orain goaz hastera horrekin, 3-4 kontzertu lotuta dauzkagu. Badugu bertigo pixka bat, prozesua alderantziz egin dugu eta.

Bakoitzari berea abestia "Herri Urrats II. Maketa Lehiaketara" aurkeztu duzue.

Bai, baina ez dugu irabazi. Kontzertuekin hastera goazela ikusita, animatu egin ginen, baina ez dugu lortu.

Lehiaketa horren irabazleak Senperen maiatzaren 11n jotzeko aukera izango du. Halako jaialdietan hartu duzue parte lehenago?

Gure musika ez da parranda batean jartzeko modukoa, jendeari bajoia emango lioke. Ez da giro horretako musika. Arratsalde lasai entzuteko musika da. Hala ere, datorrena hartuko dugu.

Bateria jo eta koroak egiten dituzu.

Txikitan saxofoia jotzen nuen eta talde batean sartu nahi nuen 17 bat urterekin. Saxofoiarekin zaila da talde batean aritzea, eta bateria jotzea erabaki nuen. Uhartan udan jaietan jo genituen abestitxo batzuk, baina Xendra da nire lehen musika taldea edo proiektua. Lasai-lasai jarraituko dugu proiektu honekin eta pixkanaka taula gainean esperientzia hartzea da asmoa.

Artzi
Patrimonia
latexea
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTA PAX 7, 650 31 31 91

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

ZENDOIA
ENEAtaberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Makroproiektuen eragin ekosozialari buruzko solasaldia

Sortalde Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateak ekitaldia iragarri du apirilaren 9an 18:30ean Sutegiko auditorioan. "Vidas Irrenovables (Bizitza ez-berriztagarriak)" izeneko dokumentala proiektatuko dute lehenbizi eta segidan, iritziak trukatzeko tartea egongo da. Hitzordurako gonbidapenak usurbilkultura.eus bidez jaso ahalko dira. Proiektzioa gaztelaniaz eskainiko da euskarazko azpidatziekin. "Trantsizio ekosoziala gaur egungo erronkarik handienetakoa dugu: erregai fosiletan oinarritutako energia sorkuntzatik, berriztagarrietara aldaketa egitea, tokiko beharretara zuzenduta, kudeaketa eta gobernantza komunitarioa oinarri duela.



Francisco J. Vaqueroren 'Vidas Irrenovables' filma eskainiko dute apirilaren 9an Sutegin.

Halaber, energia sorkuntza berriztagarriei mugarik jarri behar al zaie? Berriztagarria eta jasangarria uztargarri izateko zeintzuk dira baldintzak? Sortaldek, gaur egungo trantsizio ekologikoa ardatz, egiten ari diren makroproiektuen eragin ekosoziala eztabaida mahaira ekarri nahi du".

"Herriaren bultzada beharko dugu"

Senior mutilen eskubaloi taldeak neurketa erabakiorra jokatuko du larunbatean 17:45ean Oiardo kiroldegian. Neurketa horri begira, "herriaren bultzada beharko dugu", adierazi dute eskubaloi taldeen bilgunetik. "Pasa den larunbateko garaipenari esker, Euskal Ligako lehen postuan jarri dira usurbildar-

rrak; liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Ezinbestean irabazi beharko dituzte bi partidak lehenengo amaitu nahi badute. Horregatik, herriaren bultzada beharrezkoa ikusten dugu denon artean garaipena lortzeko. Beraz, herritarrei deia luzatzen diegu, garai zaharretan bezala, Oiardo bete, eta taldea animatzeko".



Usurbil KE taldeak partida garrantzitsua jokatuko du larunbatean Oiardon.



Emakumeen ahotsa lehen lerrera eraman zuelako saritu dute, besteak beste.

Amaia Zubiria kantariak Monzon-Ganuzua Saria jaso du

"Euskal kulturari eta musikagintzari egin dion ekarpen paregabeagatik" eman diote Zubietako musikariari Monzon-Ganuzua 2025 saria.

Olaso Dorrea Fundazioa eta Bergarako alkatearen aburuz, "Amaia Zubiriak euskal musikaren esparrua eraldatu eta aberastu du, emakume kantari baten ahotsa lehen lerro-

ra eramanez eta doinu tradizionalak berrituz. Herri kantak, jazzaren ukitua, poesiaren indarra eta zinema musikarako ekarpenak uztartu ditu, bere ibilbidean beti berrikuntzaren eta sormenaren bidetik jorratuz. Haren bizitza eta ibilbidea euskal kulturaren eta musikaren aldeko konpromiso sakon baten adibide dira".

"Ibai-Ondo Backyard" proba astebete barru jokatuko da

Hasi, apirilaren 12an hasiko da, goizeko 8:00etan. Bukatu, partehartzaileek esan beharko dute. Erresistentzia ariketa bat izango baita Santuenean estrainekez antolatu duten proba.

Dorsalak bezperatik jaso ahal izango dira. Apirilaren 11n ostirala, 18:00etatik 20:00etara, Santueneko frontoian. Larunbatean bestela, proba egunean bertan, goizeko 06:00etatik aurrera.

Caritaseko Aterpe zerbitzua lagundu nahian, gutxienez 3 kilo janari entregatzeko eskatu dute antolatzaileek. Mota guztietako lekaleak, kontserbak, olioak, kafe xigortua, marmelada, gurina, azukrea, arroza eta pasta. Boxen gunean edukiontzi batzuk jarriko dituzte elikagai solidario hauek jaso ahal izateko.

Pagazpek eta Usurbil FT taldeak Kirol Astea antolatu dute

Udako oporraldiaren aurretik, udaberrikoa datorkigu ate joko. Aurreko urteen antzera, Kirol Astea antolatu dute LH 3 eta 6 mailen arteko gaztetxoentzat Pagazpe Kirol Elkarteak eta Usurbil F.T.-k. Apirilaren 14tik 17ra, 10:00-13:00 artean izango da. Izena emateko epealdia apirilaren 6ra artekoa izango da. Helbide honetako formularioa osatu beharko da: labur.eus/9oygca4



Apirilaren 14tik 17ra ospatuko da. Izen-ematea ixtear da.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil 618773004

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Bost pertsona gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 3 logelako bizilekua behar dugu alokairuan hartzeko. 688 653 441.

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil. Harremanetarako: 627 841 927

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadroko garajea salgai Etxealdian. T685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

HILDAKOAK



Maria Angeles Arribillaga Arregi
84 urterekin hil zen, martxoaren 27an.

Boleibola Oiardon

Apirilak 5, larunbata:

- 12:00 Infantil mutilak: Usurbil-Aldapeta
- 12:00 Kadete neskek: Usurbil-Mayumi

Eskubalo partidak

Apirilak 5, larunbata:

- 10:00 Kadete mutilak: Usurbil KE B-Leizaran Txuria
- 15:45 Jubenil mutilak: -Usurbil KE -Autopia Talleres OET
- 17:45 Senior mutilak: -Saizar Usurbil KE -Muskiz Eskubaloia
- 19:15 Kadete mutilak: -Usurbil KE A -Zaisa Bidaso Irun

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. Harremanetarako: 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Zarauzko taberna batean pintxoak egiteko sukaldaria behar da. Astelehenetik larunbatera goizeko 8:00atik arratsaldeko 15:00 arte, igande eta jai egunak libre. Harremanetarako: 661972670.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Pertsona bat bilatzen dut. DBHko ikasle bati astean hirutan klase partikularrak emateko. 647 742 588.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Astebukaeratan lanerako prest dagoen mutila: basoko lanak, lursailen garbiketa, baserriko lanak. 682 774 857 (Carlos) / 670 987 921.

Adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. 747446091 (Michele).

Paperak egunean ditudan neska bat naiz eta interna moduan edo orduka zaintza lanak edo garbiketa lanak egiteko lan bila nabil. 607455413.

Etxeko lanak edota zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsalde (16:00-21:00) aritzeko prest. Interesatuok telefono zenbaki honetara deitu: 609 647 728.

BESTELAKOAK

2001 urtetik 2019 urte arteko Sagar-do Eguneko baso gratuen bilduma dukat. 943363788

55 kilo inguruko aharia salgai Mahaspildegian. 943 364 461 (12:00-15:00 artean deitu).

Frantses irakasle baten bila ari gara, DBH4ko ikasle batentzat. Harremanetarako: 615758476.

ZORION AGURRAK



Zorionak Egoi!

Eta muxu haundi bat!!! Etxekoan partez, ondo pasa zure eguna.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitetgia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiarde Kiroldetgia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutetgia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potoxenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 371 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Futbola Haranen

Apirilak 05, larunbata

- 09:00 Infantil neskek: Usurbil FT B-Intxaurdi D
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil FT C-Billabona FKE B
- 12:00 Infantil txiki: Usurbil FT-Mundaiz SCD
- 16:00 Kadete mutilak: Usurbil FT-Bergara KE B
- 18:15 Ohorezko jubenilak: Usurbil FT-Ordizia KE

Apirilak 5, larunbata (Kanpoan)

- 09:00 Infantil mutilak, Orion: Orioko FT-Usurbil FT

- 16:35 Kadete neskek, Lasarten: Ostadar SKT-Usurbil FT
- 17:15 Jubenilak, Martutenen: Martutene KE B-Usurbil FT B
- 18:20 Erregionalak, Lasarten: Texas-Usurbil FT

Apirilak 6, igandea (Kanpoan)

- 10:00 Infantil mutilak, Orio: Orioko FT B-Usurbil FT B
- 11:30 Infantil neskek, Hondarribia: Hondarribia FE-Usurbil FT
- 11:30 Preferente mutilak, Billabona: Billabona KE-Usurbil FT
- 18:15 Preferente neskek, Oiarzun: Oiarzun KE C-Usurbil FT

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

LARUNBATA 05

USURBIL Dantza Eguna

Usurbilgo 13. Dantza Eguna.
Ikus 6-7 or.

IGANDEA 06

USURBIL "Aztia" pieza eszenikoa

Don Inorrez musika taldea eta Metrokoadroka antzerki taldearen eskutik. Sarrera: 8 euro aurrez, usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri. Antolatzailea: Udala.
19:00 Sutejin.

ASTEARTEA 08

USURBIL "Kepa Anabitarte: bizitza bat herriari eskainia" liburuari buruzko solasaldia

Eneko Bidegainek Kepa Anabitarteren biografia aurkeztuko du. Antolatzailea: Nafartarrak taldea.
19:00 Potxoenean.

ASTEAZKENA 09

USURBIL "Vidas Irrenovables (Bizitza ez-berriztagarriak)" dokumentala eta eztabaida

Gonbidapenak usurbilkultura.eus. Antolatzailea: Sortalde.
18:30 Sutejin.



Oier Guillan, Ainhoa Alberdi eta Don Inorrez taldeak eskainiko dute 'Aztia' saioa.

Aztia ikuskizuna Sutejin

Aztiak zoriontasunaren inguruko mintegi bat antolatu du. Bertan autolaguntzaz mintzatu zaio publikoari, zirikatzaile. Jendartean deslilura eta desesperantza nagusitzen ari direla dirudien garaiotan, des-deslilura izango du mintzagai.

"Zoriontasuna hasiera besterik ez da" aldarrikatuko du Aztiak, hasiera oro zerbaiten amaiera izan daitekeen itxaropenarekin. Don Inorrez

musika taldea eta Metrokoadroka antzerki taldea daude ikuskizun honen muinean.

Oholtza gainean umorea eta doinu kutsakorrek izango dira nagusi, musika, antzerkia eta butoh dantza uztartuta.

Apirilak 6 igandea

- 19:00etan, Sutejin.
- Sarrera: 8 euro. Dagoeneko usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
- Antolatzailea: Udala.

Dantza Eguna, Orbeldiren eskutik

Goizean, 6. Dantzari Txiki ospatuko da eta Jalgi eta Murixka talde gonbidatuek hartuko dute parte. 11:30ean, haurren kalejira udaletxetik. 13:00ean haurren emanaldia frontoian. 14:30ean, herri bazkaria Askatasuna plazan. 17:00 Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak Artzabalen. 22:00etan "Amets" ikuskizuna frontoian. Ondoren, Laket erromeria Mikel Laboa plazan.

Hurrengo bisita gidatuak

Apirilak 5, larunbata

- 11:00-12:15 Museo irekia bisita gidatua. Informazio gehiago: 650usurbilbizi.eus

Nafartarrak taldearen eskaintza

Eneko Bidegainek Kepa Anabitarteren inguruko biografia aurkeztuko du apirilaren 8an Potxoenean. 19:00etan hasiko da solasaldia.

Joxe Mari Esparza editoreak eta idazleak 'Zumalakarregi eta Pirinioetako Errepublikak' liburuaz arituko da hizketan apirilaren 10ean, Sutejin. 19:30ean hasiko da Esparzaren hitzaldia.

Eta amaitzeko, kontzertu berezi bat. Claudine Arhantzet eta Mixel Etxekopar zuberotarrak eta Darlene Gijuminag poeta eta kantari mikmak-tarrak 'Lurretik lurrera' emanaldia eskainiko dute apirilaren 12an Sutejin.

ARANKA BERRIKUNTZAK
· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
· Igeltseritza orokorra
606 37 21 05 USURBIL

txirriStra
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 **Tel 943 36 04 66**

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

www.noaua.eus

Praktika onak sustatzen: AUZO- ETA AUTO-KONPOSTA

Auto- edo auzo-konpostaren bidez, zuk zeuk kudea dezakezu sortzen duzun organikoa.

**Eman izena
atez ateko bulegoan!**



Deskargatu
gida



Informazio gehiago: Atez ateko bulegoa Joxe Martin sagardia plaza z/g (udaletxea)
900 776 776 / 606 501 024 atezate@usurbil.eus



Usurbilgo Udalak

KAFE HUTSA

1,20 €

CAFÉ VACÍO



**Horrelako
itzulpenik jaso
nahi ez baduzu...**

**kontratatu Elhuyarren
itzulpen-zerbitzua**

Europar Batasuneko hizkuntza
ofizial guztien arteko itzulpenak

itzulpenak.elhuyar.eus

elhuyar
ezagutuz aldatzea

AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Ariketa izango den 11 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al zaude?

BAI, BETI

- 1) Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- 2) Elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.



**BAI,
NAHI ETA AHAL
DUDANEAN**

- 1) Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- 2) Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

